

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak landa-lurrean sua erabiltzea mugatu du udan suterik gerta ez dadin

Foru-aginduak debeku eta baimenen erregimena arautzen du nekazaritza eta aisialdiko jardueretan

Jueves, 16 de junio de 2011

Nafarroako Aldizkari Ofizialak (BON) gaurko, ekainaren 16k edizioan [foru agindua](#) argitaratu du: haren bidez, suaren erabilera arautzen da urbanizagarriak ez diren lurretan, eta uda-garaian zehar baso-suteak prebenitzeko neurriak finkatzen dira. Arau hau indarrean izango da uda-garaiakoak diren berezko meteorologia-baldintzak nabarmen aldatzen diren arte.

Arau horren ondorioetarako, Nafarroan bi klimagune ezartzen dira, iparra eta hegoa, eta haren banalerroa honako tokiko erakunde hauek mugatzen dute: Ameskoako mugaketak, Urbasa-Andia, Goñiko Harana, Olo, Arakil, Irurtzun, Imotz, Atez, Odieta, Anue, Iragi, Eugi, Zilbeti, Lintzoain, Gerendiain, Mezkiritz, Espinal, Burgete, Garralda, Oroz-Betelu, Garaioa, Abaurrepea, Abaurregaina, Jaurrieta, Esparza, Bidankoze, Erronkari eta Garde.

Foru-aginduak arau-errepertorio bat ezartzen du, eta barnean hartzen ditu: debeku orokorrak Nafarroa guztian; zonaldearen arabeko arautze zehatzak; pistetan eta baso-lanetan motordun ibilgailuen eta makinariaren erabilpena arautzea; lurra lantzea laborantzako lursailetan eta lasto-multzoak erretzeko debekua; eta, azkenik, sua erabiltzeko baimen bereziak, erromeriak, erlezaintza, kanping-ak, uztondoak eta kanpalekuko suak direla-eta.

Argitaratutako arauak izaera orokorrez sua erabiltzea debekatzen du zuhaitz, zuhaixka eta sasiz betetako mendiko lursailetan eta baita larre nahiz belardietan ere; baso-hondakinak erretzea ere debekatzen da, arrazoi fitosanitarioengatik izan ezik eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren baimenarekin. Lehorreko nekazaritza-lurrean sua erabiltzea ere debekatzen da, suteak edo arrisku fitosanitarioak prebenitzeko baimendutako erabilerak izan ezik, eta baita errekontzan objektuak jaurtitzea ere, ibilgailuetatik zigarro-puntak jaurtitzea barne.

Foru-agindu honek izendatutako hegoaldean aisialdia helburu duten suaren erabilera debekatzen da, horretarako prestatutako lekuetan barne; iparraldean, sua baimentzen da horretarako prestatutako lekuetan bakarrik, eraikuntzen barnean urbanizagarriak ez diren lurretan barne, baldin eta gutxienez eraikuntzako materialen egindako hiru horma eta lurra baditu edo landaretzarik ez badago, eta txinpartak kentzen dituen tximinia badute.

Piroteknia-materiala landa-lurrean erabiltzea debekatuta dago. Herrietako jaietarako epea Larrien Nafarroako Agentziari abisatu behar zaio eta, ospakizunetan zehar, antolatzaileek gutxienez hiru pertsona izan beharko ditu su-menderatzaileekin eta motxila itzalgailuarekin.

Foru-aginduak errekontzako motordun ibilgailuak hegoaldeko baso-pistetatik ibiltzea debekatzen du, honako kasu hauetan izan ezik: jabegora sartu behar bada, suteak prebenitu eta itzaltzeko, helburu ofizialetarako, baso, nekazaritza eta abeltzaintzako lanetarako, espazio naturalak zaintzeko, linea elektriko, telekomunikazioen eta ur-sareen mantentze-lanetarako, ehiza eta onddoen eremuetan sartzeko eta akanpalekuei laguntzeko. Baimendutako ibilgailu horiek zenbait baldintza bete beharko dute: telefono mugikorra eramatea, pistan bertan eta horretarako prestatutako erantsitako lekuetan soilik aparkatzea, eta 112 Nafarroako SOS larrialdiko telefonora deitzera behartuta daude dabilzan gunean suarekin lotutako gorabeheraren bat ikusten badute. Murrizketa berak agintzen zaizkie motordun makinei baso-lanetarako.

Foru-aginduak lasto-multzoak erretzea berariaz debekatzen du. Lasto-multzoak ezingo dira jarri zuhaitzi batetik 200 metrotara, eta jabeek beren izena, telefonoa eta lasto-multzoa non dagoen jakinarazi beharko dituzte. Landatutako lursailetan daudenetan, lasto-multzoaren inguruan, gutxienez haren altueraren bikoitza den banda perimetral bat landatu beharko da.